



Arartekoaren ebazpena, 2011ko ekainaren 13koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Sailari gomendatzen zaio gizarte laguntzak berriro ere abian jar ditzan etete arrazoiak agortu direnean.

Aurrekariak

1. Erreklamatzailak diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen du. Kexa prestazio hori eten diotelako aurkeztu du. Etetearen arrazoia, berriz, bera eta bere semea lanerako prest ez egotea izan da, gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko 18/2008 Legearen 26.1.b artikulua eskatzen duen baldintza.
2. 2010eko abenduaren 17an idazki bat bidali zen erreklamatzaila entzunaldiko izapidera deitzeko, izan ere, Arabako Foru Aldundiak 26.1.b artikulua hori urratzeko aukera zegoela antzeman zuen. Abenduaren 20an erreklamatzailak eskatutako agiriak aurkeztu zituen, eta bertan adierazitakoaren arabera, abenduaren 16an eman zuen izena EEZPn. Semeak hurrengo egunean eman zuen izena. Legeak azaltzen duenari jarraiki, enplegurako eskuragarritasuna etengabea izan behar da, beraz, prestazioa eteteari ekin zioten atzeraeraginezko ondorioekin 2010eko abuztuaren 1etik, egun horretan utzi baitzion lan eskatzaile izateari.
3. Prestazioa berriro ere aktibatzea eskatu ondoren, aldundiak helarazi zion aktibatuko ziotela, guraso bakarreko etxebizitzetara zuzendutako laguntzarekin batera, 2011ko martxoaren 15etik aurrera, hori guztia diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko 147/2010 Dekretuko 36. artikulua babesean.
4. Etetearen atzeraeragina dela-eta, okerreko kobratzeengatik 4.174 euroko zorra sortu da.





Gogoetak

1. Etete arrazoiari dela-eta, argi eta garbi zehaztuta dago 15/2008 Legearen 26.1.b artikuluan: *"Aplikatzekoa denean, laneratzeko prest ez egotea, enplegu-eskatzaile gisa izena emanda ez egotea edo enplegu bat errefusatzeari. Hurrengo paragrafoan, artikulua horrek etetea gauzatzeko data zehazteko modua adierazten du: 26.2 "Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea etetearekin batera, prestazioa ordaintzeari utzi egingo zaio etetea gertatu eta hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera, eta horrelaxe jarraituko da etetea eragin duen egoerak bere horretan dirauen bitartean. Etenaldia ez da inoiz ondorengo ondoko 18 hilabete baino luzeagoa izango; behin epe hori igaroz gero, prestazioa jasotzeko eskubidea azkendu egingo da.. Ildo horri jarraiki, erakunde honen ustez logikoa da etetearen data atzera egitea erreklamatzaila INEM/EEZPn jasota egoteari utzi zion unera.*
2. Hala eta guztiz ere, ez gatoz bat berriro ere aktibatzeke data zehazteko jarraitu den irizpidearekin. Arabako Foru Aldundiak diru-sarrerak bermatzeko errentak eteteko erabilitako 2011ko urtarrilaren 28ko ebazpenaren idazkiari jarraiki, etete horren arrazoa zera da "(...) titularra eta lana egiteko adinean dauden haren bizikidetzaren unitateko kideak enplegurako eskuragarriak egoteko beharra eta baldintza galdu du eskatzaileak aldi baterako, horiek etengabe lan eskatzaile gisa egoteko konpromisoa baitzuten(...)".
3. Dagoeneko adierazi dugun moduan, erreklamatzailak abenduaren 16an eman zuen izena INEM/EEZPn, eta semeak hilabete bereko 17an egin zuen. Prestazioa INEM/EEZPn izena eman ez izanagatik eten zenez, egoera hori zuzentzean 17tik aurrera etetearen arrazoa indargabetu zela uste dugu. Zera dio 18/2008 Legearen 26.3. artikulua: *"Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea etetea eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean, prestazioa sorrarazteko baldintzak une horretan badauden ala ez egiaztatuko da, ofizioz edo interesdunak eskatuta, eta, baldin badaude, prestazioaren zenbatekoa ezarriko da. Prestazioa hura eteteko arrazoiak desagertzen diren egunaren biharamunetik aurrera sorraraziko da".*





3. Gure informazio eskaerari erantzunez, Arabako Foru Aldundiak zera erantzun zigun: *"Actualmente Dña. XXXX ha solicitado la reanudación de la Renta de Garantía de Ingresos y el subsidio de hogares monoparentales, que serán reanudados con fecha de efectos del 15 de marzo 2011, según artículo 36 del decreto 147/2010"*.

"Prestazio Onartzea" IV. kapituluaren bornean dagoen 36. artikuluko horrek zera dio: *"Diru-sarrerak bermatzeko errenta (edozein izanik ere modalitatea) sorrarazi egingo da eskabidea aurkezten den egunaren biharamunetik aurrera."* Hau da, agindu horrek prestazioaren hasierako onartze prozesuaren zati bat arautzen du, eta ez ordea onartutako baina arrazoi zehatz batzuegatik etendako prestazioaren berrezarpena. Berrezarpena aipatutako 26.3 artikuluko horrek arautzen du, etete horiei zehazki zuzendutako aginduaren hirugarren paragrafoak: beraz, akats argizat jotzen dugu 147/2010 Dekretuko 36. artikulua prestazioaren berrezarpenaren, eta ez onarpenaren, dataren erreferentzia hartzeko erabiltzea.

Hau da, erakunde honek maiz antzeman izan duenez, praktikan prestazioa iraungi da eta ondoren onartu egin da berriro eskatu ondoren.

4. Okerreko kobratzeengatik zorra sortzeari dagokionez, Arartekoak behin baino gehiagotan azpimarratu du foru aldundiek horren inguruko prozedura berria hasteko beharra dutela, 147/2010 Dekretuko 57. artikuluko babesean. Kasu honetan, berriro ere, arau horrek ezarritakoa urratu da eta horrek, beste eragozpenen artean, egokitzat jotzen diren alegazioak aurkezteko entzunaldi izapidearen deialdia alde batera uztea eragin du, bai eta zorra 4.174,50 eurokoa izateko arrazoiak zehaztasunez ezagutzeko ezintasuna ere. Kasu horietan sortzen den babesgabetasuna begi bistakoa da.

Zentzu horretan, uste dugu Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 62.1.e artikuluan xedatutakoa aplikatu beharko litzatekeela. Artikulu horren arabera, erabat baliogabeak diren administrazio egintzen artean honako hauek daude *"dictados prescindiendo total y absolutamente del procedimiento legalmente establecido"*.



Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

18/2011 GOMENDIOA, ekainaren 13koa, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikako eta Gizarte Zerbitzuetako Sailari egina

1. Prestazioa berriro aktibatu dadin, 147/2010 Dekretuko 26.3 artikulua ezarritako jarraibideen arabera, etetearen arrazoiak indargabetu eta hurrengo egunetik hasita, hau da, 2010eko abenduaren 18tik aurrera, erreklamatzailaren semeak EEZPn izena eman zuen egunaren biharamunean.
2. Okerreko kobratzeengatik zorra bertan behera utz dezan, ez baitaio errespetatu araudiak ezarritako prozedura (30/92 Legearen 62.1. artikulua).
3. Hemendik aurrera diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko eta iraungitzeko kasuak argi eta garbi zehatz ditzaten, bien prozedurak eta ondorioak ezberdinak baitira.

